

Erref.: FMR / Legelari aholkularia

GAIA.- BIZKAIKO GIZARTE URGAZPENERAKO FORU ERAKUNDEKO HAINBAT LANPOSTU BETETZEKO MEREZIMENDU OROKORREN LEHIAKETAREN DEIALDIA.

KONTUAN HARTZEKOAK.- Kontuan harturik lanpostuak betetzeko aurreko lehiaketatik hona hainbat denbora igaro dela eta Covid-19aren pandemiaren ondorioz ezarritako osasun-larrialdia atzean utzi dugula, ondoren zerrendatuko diren lanpostuak bete nahi dira, Erakundeko langile finkoek mugitzeko eskubidea izan dezaten.

Lehiaketaren xede diren lanpostu guztiak hutsak dira (okupatzailearekin edo gabe), zerrendatutako lanpostuak enplegu publikoaren eskaintza arruntetan edo ezohikoetan sartuta eta konprometituta daudenean izan ezik, bai aurrekontu orokorren legeen esparruan, bai aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesuren batean, enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen babesean.

Erakundeko negoziazio-mahaiak lanpostuak merezimendu orokorren lehiaketa baten bidez betetzeko oinarriak ezagutu eta negoziatu zituen, erantsitako dokumentuetan ikus daitekeen bezala, helburu horretarako egindako bileretan – 2022ko martxoaren 30ean, apirilaren 29an eta maiatzaren 18an, akta zenbaki hauen bidez, hurrenez hurren: 3/2022, 4/2022 eta 5/2022.

Oinarriek errepikatu egiten dituzte, GUFEn eremuan eta aztergai dugun kasurako, zerbitzu zentralak Bizkaiko Foru Aldundiari berari dagokionez negoziatutako baldintzak eta betekizunak, baina, hori bai, GUFeri dagozkion berezitasunak jasotzen dituzte.

KONTUAN HARTZEKOAK.- GUFEn Estatutuak aldarazteari buruzko 2001eko maiatzaren 30eko 4/2001 Foru Arauaren 5. artikuluan ezarritakoarekin bat, gai honetaz arduratzeko eskumena GUFeko Gobernu Batzordeari dagokio.

Horregatik guztiagatik, idazki honen sinatzaileak Gobernu Batzordeari aurkezten dio, aztertu eta onar dezan, honako

ERABAKIA

Lehenengoa.- 1. Eranskinean zehazten diren GUFeko zenbait lanpostu betetzeko merezimenduen lehiaketa orokorraren Deialdia onartzea.

Bigarrena.- Erabaki honen 2. Eranskinean jasotzen diren deialdiaren oinarriak onartzea.

Hirugarrena.- Erabaki hau, oinarri guztiekin batera, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Iragarki Taulan eta GUFEn web-orrian argitaratzea.



Laugarrena.- GUFeko Gerente jaunari baimena ematea Deialdi hau garatzeko beharrezkoak diren egintza guztiak egin ditzan, dagokion ebazpena eman arte.

Bosgarrena.- Erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, bi (2) hilabeteko epean; edo, bestela, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez daiteke Batzorde honetan, hilabeteko (1) epean.

Bilbon, 2022ko maiatzaren 18an.

ZERBITZU OROKORREN ZUZENDARIA

Sin.: Eneko Gutierrez Coterón

GERENTEA

Sin.: David Latxaga Ugartemendia